

Arrasate

1995eko
maiatzak 26
278. zenb.

ELKARRIZKETA

Alfonso Bolado

ERREPORTAIA

Alkoholiko
Anonimoak



SAILA
SECCION
MAHAIA
MESA
A letratik K letrara
(Ordena alfabetikoa lehen deiturarik)
De la letra A a la K
(Orden alfabetico primer apellido)

SAILA
SECCION
MAHAIA
MESA
L letratik Z letrara
(Ordena alfabetikoa lehen deit...)

Udal Hauteskundeak
**Dena gertu
iganderako**

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

40 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.
BENETAN HARRIGARRIA!

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE

ALMACENES ARRASATE

ELEKTRAGAILUAK

ALMACENES ARRASATEn erosita dena abantailak dira!!

**AMETS EGITEA DOAN
DA ETA BAITA ERE
TURE OPORRETAKO
EGONALDIA**

ALMACENES ARRASATEk zozketa gabe, 2 pertsonendako 7 eguneko egonaldia luxuzko apartamentutan "Canarias" "Balears" edo "Costa del Sol"en

OPARITZEN DIZU

50.000 pta. edo gehiagoko balioko erosketagatik eta artikulu batzuetan 35.000 pta. baino gutxiagoko balioko erosketagatik

5 urteko garantia elektrogailuetan emateaz gain opor hobereen garantia.



Kataide
Poligonoa 3. pab.
20500 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 52
Faxa: 77 13 13

- 1- 700 m² baino gehiagoko almazena
- 2- Marka hoberenak: FAGOR, ASPES, BOSCH, AEG, PANASONIC, NOKIA, PHILIPS.
- 3- 24 ordu "S.A.T."
- 4- 5 urteko garantia.
- 5- Okasioko aparagailuak.
- 6- Almazenerako prezioak.

ZATOZ ETA IKUSI

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera:
9-1 eta 3-8
Larunbatak:
10-1

Hauteskunde hauetan botorik ez dutenei gutuna

“Baina gazteari gauza asko barkatzen zaizkio, batez ere, hamasei urte t'erdirekin”

“Violet to Vita” V. Trefusis

Zuetariko banaka batzuk irakurriko dituzue lerro hauek -nahiko lan daukagu bestela ere etxeko lanak egiten- esango du batek baino gehiagok. Horrela dela jakinik ere, zuei, hamasei eta hamazazpi urteko gazteei, eskaintzen dizuet gaurko iharduna. Zuei, gazteoi, hanka bat pubertaroan eta bestea gaztaroan daukazutenoi, zuen nortasunaren bila etengabe lanean ari zaretenoi.

Ezer baino lehen jakin ezazue eremu politiko eta sozialean aire freskoaren beharra dagoela oraindik ere eta eraikuntza haundiak, jadanik jasota daudela badirudi ere, jasotzeko daudela. Horregatik gaur ahotsik ez duzuen arren, badagokizue prestatuz joatea. Ez ahaztu amesten dituzuen utopia guzti horiek, edozein motakoak direla ere, lagunduko dizuetela bidean aurrera egiten, ez baitago aurrera egiterik utopiarik gabe. Ez izan beldurrik aniztasunari, kontuan izan desberdintasunak ezin direla ahaztu, ez eta ezabatu ere. Konturatzen bazara gutariko bakoitza desberdina da, fisikotik hasita ere hainbat eta hainbat ñabardura aurkituko dugu: gehiengo bakoitza edo baxuago izatea, argalago edo gizenago,...; pentsamoldeari dagokionez gauza bera, jatorriari dagokionez: bertakoa edo kanpotarra

izatea, eta abar. Dena den, badakit denak bezalakoa ez izatearen ideiak ikaritzen zaituela.

Aniztasuna errespetatzea zaila da eta are gehiago manipulazioa erraz ematen den aldi honetan: batzuk koldartzat hartuko zaituzte porroak erretzen ez dituzulako, beste batzuk txepel bat zarela esango dizute besterik gabeko borrokara apuntatzen ez zarelako, edo enpolloi gizarajoa zarela entzun beharko duzu, eta hau, zure lana ongi betetzea gustatzen zaizulako. Halere, jakin ezazu zu zeu izatea dela gauzarik inportanteena eta nork bere burua ezagutu behar duela jakiteko zer nahi duen gustora bizitzeko. Horrela, talde modura, zuen aniztasunetik abiatuz besteen aniztasuna ulertzen eta errespetatzen ikasiko duzue.

Ez izan presarik gauza berriak dastatzeko, ez duzu betik lehena izan beharrik, zu zeu izatearen gogoak gidatuko zaitu bizitzaren bide luzean.

Bukatzeko, gaur ahotsik ez baduzu ere, denborak ez du alperrik aurrera egingo, igarotzen den egun bakoitzean getuago eta garbiago ikusiko duzu zu zeu izatearen ideia, zeure burua manipulazio guztietatik kanpo ikusiko duzularik.

MATILDE SAINZ OSINAGA

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerme Altube eta Itaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria

Aramaioarrok misoginoak ote?

Garbi dago "eme" izan behar dutela derrigorrez "Ar-antza" duten guztiek edota "Ar-giñe" izenekoak, Aramaiokoak izan ala ez. Baina nik, egia esan, ez nuke sinistu nahi neure herriko "Itzi-ar", "Iz-ar", "Pil-ar", "Bak-artxo"... guztiak arrak direnik. Niri behintzat ez zaizkit iruditzen... benetan!

Halere, Aramaioko Udal Kultur Batzordeak besterik esan du eta hemendik aurrera badirudi bertako neskak "Itzi-tar", "Iz-tar", "Pil-tar" eta horrela izendatu beharko ditugula, sexu-identifikaziorako arazorik gerta ez dadin.

Ildo beretik, eta arazo berberagatik nonbait, aramai(x)arrok "aramaixotar" izango gara aurrerantzean, zeren-Udal Batzordeak dixit-"aramaio-ar" izateak hain gogoko ditugun "emeak" ingurutik uxatzera eramango baikintuzte. Ongi etorria, beraz, sexismoaren aurkako kanpaina berri hau!

Baina gatozen kanpaina honen sustraietan dagoen arazora. Nola behar da Aramaioko biztanleontzaren jentilizioa: aramai(x)ar ala aramai(x)otar?

Villasantek (1972an Aramaion bertan egindako hitzaldian, portzierto) argi utzi zuen horrelako zalantzetatik ateratzeko erizpideak non aurkitu: "Xehetasun hauek herrian bertan edo herri hartatik gertu xamar bizi direnek jakitzen dituzte". Halere, badirudi maiz asko ez herrikoek ez eta herriatik gertu bizi direnek ere ez dakitela nola den herritarren (hemen ez da "herri-arren", ez!) izena.

Geureari gagozkiola garbi dago aramai(x)oar eta aramai(x)otar bikotera mugatzen den gatazka honetan herritarren zentzunari dagokiola bata ala bestea aukeratzea eta erabiltzea. Hori dela eta hiruz-

palau puntu ekarri nahi nituzke hona argi-emaile izango direlakoan:

1.- Ezin zaio inori ukatu bere burua nahi duen moduan izendatzeko eskubidea. Horretarako ez du ez akademiarik ez erregerik behar. Aski du mintzatzeko jakitea.

2.- Arrazoizko izendapenik gura izanez gero, oinarri bila abiatu beharko da lehenengo: hitzun fidagarrienean (eta ez erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen diren hitzunean) darabiltzaten formak aztertuz, hizkuntzaren senari begiraturaz, egon daitekeen tradizio idatzia ikertuz, etab.

Orain arte Euskaltzaindiak egin izan du hori, nahiz eta inoiz auskalo zein belarrak jaso edota zernolako analogiak eragindako arrozkeriak ere proposatu izan dituen ("aramaiar" delakoa lekuko).

3.- Tradizioan errota, egozia eta ofiziala den "aramaio-ar" jentilizioa ere onartzeko prest ez balego, hobe luke Udal Kultur Batzordeak izena aldatzeko bitartekoak jartzeko hasiko balitz, besteak beste azterketa linguistikoak burutzekoak, honelakoetan sasi-etimologiak eta "zenbaitzu"-ren gustuak ez baitira ez aski ez zilegizko.

4.- Hori egin bitartean, ez dugu faltan izango Villasantek zioen "herritik gertu xamar bizi direnak" multzokoen testigantza. Arrese Beitia otxandioarra (ez "otxandio-tarra") duela ehun bat urte eta Baribarren belarri finak ere ongitxo ohartu ziren "aramaioar" zirela Aramaion bizi zirenak. Era berean hizkuntz arloan inguru hauetan inoiz izan dugun jakitunik jakituenak ere (bihotzean gindermatzen Azkue lekeitiarraz ari naiz, jakina) ondo baino hobeto zekien zein zen zegokigun jentilizioa. Adibide gisa, 1916an gure herriko enparantzan bertan egin zuen hi-

tzaldian "aramaioar"-tzat hartu gintuen oraindik hazitxoan ez ginenok ere.

Nahi duena esan beza, beraz, "hizkuntzaren forma normalizatuaren kontra, "Aramaiotar" diren "zenbaitzu" horien menpe bide dagoen Udal Kultur Batzordeak. Arrazoi osoa du J.L. Ormaetxea erdi-aramaioar nahas-keta honetatik ateratzeko proposamena egin duenean, Aramaiokoak, besterik demostratu arte, aramai(x)oar baino ez garelako.

P. SALABERRI

Jarraitxoei

Diotenez, faxismoaren azken garraixi errepresiboak Frankorekin joan ziren, baina badaude oraindik gure herrian, orduko "Cristo Rey" k egiten zuen bezalaxe, hemengo abertzaleak jipoitzen diharduten gudaritxoak. Denok dakigu nortzuk diren, Koordinadora Antiabertzale Sozialistaren Jarraitxuak. Aurretik, Euskal Herri osoan zehar, makina bat alditan EGI kideak eraso ondoren, oraingoan gure bailarān bota dute euren ekintza errepresiboa, gutariko baten automobil bat errez. Noiz arte jasango ditugu gazteok, euskal gaztediaren gidari direla dioten lau "Kinito" jarraitxu faxistoiaren eraso eta mehatsuak?

"Ez zarete uste duzuen baina guk badakigu zer zareten"

Aittu, bai?, ba kitto!!

Gora Euskadi Askatuta!!

DEBA GARAIKO EGI


Udal Hauteskundeetako ale berezia astelehenean

Aurreko hauteskundeetan egin dugun bezala, astelehenerako Udal Hauteskundeetako buruzko ale berezia izango duzue herriko kioskoetan: emaitzak, alderdien eboluzioa, hautagaien iritziak... dena fresko-freskoan eta dohainik ARRASATE PRESSEN eskutik.

Oharra

Gogoratu nahi dizuegu eskutitzak argitaratzeko ezinbestekoa zaigula, igorleen izen-abizenak, telefonoa edo helbidea eta NAN-a izatea, azken aldean sinadurarik gabeko gutunak jasotzen ari gara eta.

Nork irabaziko ditu hauteskundeak? zergatik?




**Esther Learreta
Dendaria
(28 urte)**

Ez nago oso ziur, benetan esaten dizuet. Aurreko hauteskundeetan nahiko istilu egon zen eta bi alderdi partekatuta egon ziren. Aurten sekula baino ardura gutxiagoz jarraitu dut kanpaina.



**Mari Luz De la Maza
Etxekoandrea
(66 urte)**

Ez dakit baina PPK irabaziko duela esaten da. Arrasaten, berriz, EAJk irabaziko duela uste dut.




**Agustin Azkoaga
Jubilatua
(81 urte)**

Hemen EAJ edo HB hor ibiliko dira gehienak. Nire ustez honek biok ibiliko die.



**Simon Urizar
Jubilatua
(74 urte)**

Horixe ez dakit, ezin neike esplikatu. Zeinek irabaziko duen? Ideiarik ere ez. Neuk pentsatzen dut hemen HBk aterako duela.




**Ane Iñurrategi
Eroskiko langilea
(29 urte)**

Ez dakit, orain arte HBk irabazi du, HBk irabaziko du. Uste dut hemengo jendea abertzalea dela.



**Florentzio Ojanguren
Jubilatua
(70 urte)**

Nik pentsatzen dut PNVak irabaziko duela, PNV edo HB hor ibiliko die, edo Garai-koetxea...



**Rafael Nafarrate
Fagorreko langilea
(37 urte)**

HBk orain arte gehiengoa eduki du eta nahiz eta jaitsi jarraituko duela uste dut.



**Karlos Beltran
Ikaslea
(19 urte)**

HBk. Ez dakit, orain arte berak irabazi duelako.

PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

**UDAKO ORDUTEGIA:
Egurdietan ere
zabalik**

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Errealfirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 26

Egunez eta gauez : Español. Iturritz.

Larunbata 27

Egunez eta gauez : Corcuera. Musakola.

Igandea 28

Egunez eta gauez : Irizar. Erguin.

Astelehena 29

Egunez eta gauez :Amezua. Santamaina.

Asteartea 30

Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteazkena 31

Egunez eta gauez : Morales. San Andres.

Osteguna 1

Egunez eta gauez : Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

26 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Ni un pelo de tonto" 7etan eta 10etan.
- **GAZTEEN ASANBLADA**
 Euskararen aldeko gazteen asanblada, AEDko lokalean arratsaldeko 7.30etan.



HAUR DANTZARIEN EGUNA

Ekainaren 18an Haur Dantzarien eguna egingo da Arrasaten. Ume asko etorriko denez eta guztiek herriko familiekin bazkalduko dutenez, zuen etxeetan dantzariaren bat konbidatu nahi baduzue eman izena AED edota HIRE liburudendan.

27 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Ni un pelo de tonto" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ARRASATE KIROL PROIEKTUKO EKINTZEN BUKAERA**
 Arrasate kirol proiektuko ekintzei bukaera emateko eguerdiko 12etan sari banaketa partaide guztientzat Iturripen eta baita opari zozketa: Bzikletak, mendiko botak, patinak, lotarako-zakuak...
- **IV. AI ANDALUS TXIRRINDULARI LASTERKETA**
 Taldekako Euskadiko txapelketa kadeteentzat arratsaldeko 4etan Arrasaten.
- **MANIFESTAZIO NAZIONALA BAIONAN**
 Euskal Herrian bizitzeko eskubidea lemapean manifestazioa Baionan. Arrasatetik autobusa arratsaldeko 3retan irtengo da Garibaitik

• **PERRETXIKUEI BURUZKO HITZALDIA**
 Perretxikuen gaineko hitzaldia Eskoriatzako Kultur etxean arratsaldeko 7etan.

• **TXATXILIPURDI LUDOTEKA**
 Txatxilipurdi AEDko ludoteka ibiltaria San Andres auzoko alkateztan goizeko 11etatik 1etara. OHoko lehen mailatik zortzigarren maila bitartekoei zuzenduta.

• **ROCK KONTZERTUA**
 Arsenal, Iskanbila, Mad Shadows eta Hildako poetak taldeen kontzertua Elgoibarreko Bodeguilla Iñakin, arratsaldeko 7etan.

28 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Tierra y libertad" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibildidea: Arrasate, Oñati, Udana, Urretxu, Azkoitia, Gorla, Bergara eta Arrasate, 67 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrondik.
- **TXIRRINDULARI LASTERKETA ARETXABALETAN**
 Lehen mailako kadeteen txirrindulari lasterketa Aretxabaletan, goizeko 10etan.
- **ARRASATE KIROL PROIEKTUKO IRTEERA**
 Murura irteera O.H.Oko 3. mailatik 8. mailara arteko ikasle eta guraso guztiei zuzenduta. Irteera goizeko 9.30etan Iturripen.
- **ERRUSIAKO ORKESTRA NAZIONALA**
 Errusiako orkestra nazionala eta Goikobalu abesbatzaren kontzertua, Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

AUTOESTIMA IKASTAROA

Ekainaren 5etik 9ra Autoestima ikastaroa. Talde murriztuak. Ordu-tegia: arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara. Gizarte Hezketarako Zentruak antolatuta.

29 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Tierra y libertad" 7etan eta 9.30etan.
- **ERRUSIAKO ORKESTRA NAZIONALA**
Errusiako Orkestra Nazionala eta Goikobalu abesbatza-
ren kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. Arrasate Musikalek antolatuta

IBILALDIA SANTURTZIN

Urtero bezala aurten ere, Ibilaldira joateko autobusa antolatu du AEDk. Ibilaldia Santurtzin egingo da ekainaren 4ean eta autobusak irtengo dute goizeko 9etan Zaldibarretik. Autobusaren prezioa 1.000 ptakoa da eta joan nahi duten guztiek txartela Hire liburudendan eta Iturriotz tabernan eros dezakete. Izena emateko azken eguna ekainaren 2a izango da.



ATZERATUEN ASTEA

Elbarrituek eginiko Bizkaiko Antzerki Beltzaren emanaldia ekainaren 2an Amaia Antzokian arratsaldeko 3retan.

30 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Tierra y libertad" 7etan eta 9.30etan. Ikusleen eguna.
- **"BESTE OIHUAK" HITZALDI ZIKLOA**
Gaia: "Latinoamerikan amnistia Internazionalen proiektuak". Hizlariak: A.Iko partaidea. Biteri egoitzan 6.45etan.
- **ATZERATUEN ASTEA**
Hitzaldia. Gaia: "Atzeratuen etorkizuna gurasoak falta direnean". Hizlariak: Kany Peñalba, Atzegiko Gizarte Laguntzailea. Monterronen arratsaldeko 7etan.

• **ECO-KONTSUM ERAKUSKETA**

Laubide ondoan maitzaren 30etik ekainaren 10era. Ordutegia: goizez 10etatik ordubatera eta arratsaldeko 3etatik 8etara. Jai egunetan 11etatik 2etara eta 5etatik 9etara.

BESAIDEREN MENDI IRTEERA

Ekainaren 4ean Izpegi, Iparla, Bidarraira mendi irteera Besaidek antolatuta. Irteera goizeko 7etan Garibaitik. Izenematea maiatzaren 30, 31 eta ekainaren 1ean, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.

31 ASTEAZKENA

- **ATZERATUEN ASTEA**
Zinea: "Quién ama a Gibert Grape" Monterronen arratsaldeko 7etan.
- **"BESTE OIHUAK" HITZALDI ZIKLOA**
Gaia: "Extranjeria legea". Hizlaria: SOS racismoko partaidea. Biteri Egoitzan arratsaldeko 6.45etan.

XIXKAR MAJIA TALDEA


Ekainaren 2an Xixkar majia taldearen emanaldia Santamainako liburudendan arratsaldeko 6etan. Udal Liburutegiak antolatuta.

1 OSTEGUNA

- **ZINE KLUBA**
"Mi pie izquierdo" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Sarrera 300 pta. eta gazte txartelarekin 250 pta.
- **ATZERATUEN ASTEA**
Hitzaldia. Gaia: "Elbarrituak eta enplegua". Hizlariak: Iñaki Alkorta, Gureak-eko zuzendaria eta Mariano Cortes, Zeharoko zuzendaria. Monterronen arratsaldeko 7etan.
- **"BESTE OIHUAK" HITZALDI ZIKLOA**
Mahaingurua: "Hirugarren munduari nola lagundu". Partaideak: Askapena, Karitas, Komite Internazionalistak. Biteri Egoitzan arratsaldeko 6.45etan

IV. AL ANDALUS TXIRRINDULARI LASTERKETA

Zapatuan Taldekako Gipuzkoako txirrindulari txapelketa kadete maila. Irteera Iturripen arratsaldeko 4etan. Ibilbidea: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aingeru guarda, Eroski, Arrasate, 57 kilometro guztira. 120 txirrindulari espero dute antolatzaileek.



Fagorren batzar orokorra


Ostegun arratsaldean Fagor taldeko 200 ordezkari Aita Mennin bildu ziren urteko batzar orokorra egiteko. Iaz 2.400 miloiko irabaziak izan zituen Fagorrek eta aurten ere emaitza onak izango dituztela espero dute. Batzarrean, MCCk burtsara joateko hartu zuen erabakia eztabaidatu zen besteak beste. Aurreko astean, kooperatiba bakoitzak batzarra egin zuen banan-banan.

Trikitixa jai giro alaiean

Arrasateko trikitilari eskolako partaideak zapatuan bildu ziren, urteroko trikitilari eguna ospatzeko. Festa goizean hasi zen eta eguerdian berrogeitabost lagun Garagartzako auzo etxean bildu ziren bazkaltzeko. Arratsaldean, soinu hotsak nagusitu ziren Garagartzan.

Senideen arteko topaketak Aita Mennin

Familiartekoen eta gaisoen arteko harremanak sendotzeko, astebukaeran senideen arteko hamargarren topaketak egin ziren Aita Menni ospitalean. Topaketa horien bidez, gainera, gaisoekin ospitalean zer lan egiten den ikusteko aukera izan zuten familiartekoek.



Atzeratuen hirugarren astea

Maiatzaren 30etik ekainaren 4era arte burutuko den atzeratuen astea aurkeztu zen asteartean. Egun horietan zehar hitzaldiak, pelikulak eta antzerkia izango dira aukeran. Ekintza nagusia, berriz, zapatuan izango da. Ikasturte amaieran Arrasate Musikalek eman ohi duen kontzertua, aurten Amaia Antzokian izango da atzeratu astearren barruan. Kontzerturako sarrera dohainik izango den arren, kutxa bat jarriko da sarreran norberak zertxobait eman dezan. Betiko moduan, atzera-tuendako ekintzak egingo dira igandean.



Jubilatuen omenaldian 1000 lagun

Urtero moduan, joan den zapatuan jubilatuen eguna izan zen SUDC-ek antolatuta. Goizean meza izan zen San Juan parrokian eta ondoren, bazkaria Kiroldegian. 1000 jubilatutako inguru bildu zen bazkarian. Bazkalostean, 95 urteko Cándido Moralejari eta 98 urteko Josefa Alvarez, aitona eta amona zaharrenei, opari bana eman zieten.

Bi hildako lan istripua n

Zapatu goizean, goizeko zazpiak inguruan, lan istripua izan zen Aretxabaletako Copreci lantegian. 49 urteko F.U.O-ri eta 58 urteko J.M.O-ri makina bat gainera erori zitzairen eta bi langileak hil egin ziren. F.U.O Aretxabaletako Arientza auzoan bizi zen eta J.M.O Arrasaten.

JAIOZKAK

- Ane Cabrera Rodriguez. Maitzaren 5ean.
- Pedro Miguel Sergio Ferreira. 5ean.
- Maria Markiegi Mendieta. 10ean.
- Ibai Errasti Larrañaga. 7an.
- Aiher Telleria Peñin. 7an.
- Amaia Balenziaga Villar. 9an.
- Ainhoa Delgado Llodio. 13an.
- Ander Gallardo Saiz. 14an.
- Olatz Fernandez Estrella. 16an.
- Miriam Mulas Jimenez. 14an.
- Josu Ariño Larrañaga. 17an.

EZKONTZAK

- Jose Ramon Valle Moli-nuevo eta Izaskun Jimenez Ibartutxi. Maitzaren 20an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Ana Maria Crespo Barrutia. Maitzaren 17an. 52 urte.
- Blas Iburguren Arrieta. 18an. 84 urte.
- Jose Apraiz Uroz. 20an. 80 urte.

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

ARGI PLASTIC
 • PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
 • Lantegitik zure etxera zuzenean
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

beatriz
oinetakoak eta poltsak
 Erdiko kale, 11
 Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Xabier Zubizarreta (HB)

Hirugarren aldiz alkate izateko gertu

Adina: 50 urte.
Ezkondua. Bi seme ditu.
Informatikoa.
Afizioak: Eskulanak eta basoan ibiltzea.

- Zer azpimarratuko zenuke HBren programatik?

- Lehenik, programa egiteko erabili dugun metodologia partehartzailea nabarmenduko nuke. Edukiari dagokionez enpresa berriak sortzeko zentrua eraikitzea, etxebizitzak sozializatzen ahalegintzea, errekek garbitzea eta birziklaiaren bidez zaborraren tratamendua bultzatzea izango dira zeregin nagusienak. Horretaz gain, udal zergak ez igotzea eta ospitale zaharra kulturagune bihurtzeko helburua dugu.

- Zein emaitza lortzea espero duzue?

- Zazpi zinegotzi lortuko ditugulakoan gaude. Uste dugu herriak eran-

tzungo diola orain arte egin dugun ahaleginari.

- Hirugarren aldiz alkate izateko gertu?

- Alkate izatea esperientzia interesgarria izan da eta hirugarren aldiz alkate izateko gertu nago. Azken bi legegaldietan bezala, Herri Batasuna da alkatetza lortzeko aukera gehien duen alderdia.

- Gasteizko tripartitua Arrasaten eratzu gero, HBk alkatetza galduko luke.

- Arrasaten tripartitok


ezingo du funtzionatu, Gasteizen ere ez du funtzionatzen eta. Beraz lehenengo, aukera horrek balio dezakeela erakutsi beharoko lukete. Herri Batasunak alkatetza galtzea ez da arriskurik handiena; Arrasateko herriak erakutsi duen borondatea ez errespetatzea izango litzateke larriena. Hau da, alderdi botatuenari alkatetza lapurtzea eta udal gobernuan izan behar duen ordezkaritza kentzea.

- Oposizioan egotea tokatzen bazaizue?


- Zaila ikusten dugu guri oposizioan egotea tokatzea, baina horrela bada, herriaren alde lanean jarraituko dugu.

- Zer esan dezakezu gainontzeko zinegotzigaiei buruz?

- Alde batetik udal-tertxea ondo ezagutzen duten lau lagunek zerrenda eta bestetik, ideia berriak emango dituzten beste hiru lagun berrik osatzen dugula zerrenda.



Xabier Zubizarreta (Herri Batasuna)



■ PSE-EEren ekitaldiak

Asteartean hitzaldi afaria izan zen Herriko Etxean. Asteazkenean, berriz, mitina izan zen Monterronen. Guillermo Etxenike, Ana Miranda, Mario Onaindia, Esteban Eguren eta Ignacio Jimeno izan ziren hizlari. Ostegunean, Jorge Letamendia diputatua etorri zen Urkuluko depuragailuan egin den handitzea eta Akei-ko errausgailua ikustera.

■ Sudupe Arrasaten

Roman Sudupe, Gipuzkoako diputaziorako EAJren hautagaia, Gesalibarren izan zen ostiralean. Azpiegitura diputatuak, San Juan ospitalean egiten ari diren obrak bisitatu zituen eta Diputazioak Gesalibarreko bidea konpontzeko erabakia hartu duela esan zuen.

■ Zutik-en mahaingurua


Ezkerrak alda dezake udal-letxea? galderari erantzun zieten, Zutik-en mahainguruan parte hartu zuten hizlariak. Tere Saez, Begoña Vesga, Rixi eta Roberto Sampedro ari ziren hizlari.

■ EBren hitzaldia

Enrique Gonzalez, Ezker Batuko koordinatzaile orokorra Arrasaten izan zen asteartean. EBko koordinatzaileak esan zuenez, politikoei gai askori buruz hitzegiten dute baina ez dituzte benetako arazoak ikutzen.

■ EAren hitzaldia

Ostiralean hitzaldia eman zuen Arrasaten Jose Julian Irizarrek. Astelehenean, Patxi Ormazabal, etxebizitza sailburua izan zen babes ofizialeko etxebizitzaren ginean hitzeginen.



* Iñaki Telleria

Jon Salaberriri

Jon hil egin da eta oroitzen gutariko bakoitzean pilatzen dira. Batzuk galdutako lagunaren samintasunaz eta gaitz krudel honek sortzen duen inpotentzia sentsazioaz negar egiten dute; beste batzuk, berriz, malenkoniak betetako tranze batean utzi ditu, negar eta farreen joan-etorri zoroan elkartzen diren bizi izandako uneetan... paisaiak, pertsonak, kaleak..., ez dago tokirik axolagabetasunarentzat.

Guztioi irakatsi digu "zerbait".

Nork ez ditu bere beldurak Jon berarengan isladatuta ikusi...? Nork ez du bere adorea baloratu? bere ausardia, bere konbentzimenduak, bizitza eta maitasuna ulertzeko bere modua?

Erabat nekeak hartutako

gorpu zaurituari egunez egunez borroka bakartia irabazterakoan, berak agertutako borondate eta kemenak nor ez du ezustean harrapatu?

Jonek guztioi irakatsi digu zerbait.

Jonek HIES Ekimena sortu zuenean, bakartasun egunak ziren seropositiboarentzat. Informazio falta, osasun munduak berak eta gizarteak orokorrean gaisoengan eragiten zuen estigmatizazio

krudela, arazoa "bakar batzuren" zen.

Kalifikazio edo izendapen horrek zekarren irain kargari muzin eginez, Jonek jendaurrean informazio eta prebentzio lanari ekin zion, ez zuen inolako estigmatik izkutatuta eta ez zuen ezta kontrizio ekintzarik egin ere HIES-a den bezala onartu zuen, moral falto eta etiketari jaramonik egiten ez dion gaisotasun itsu bat.

Jonek guztia eman zuen ezerगतik, berarentzat soluzioa berandu iritsiko zela jakinarren; trukean laguntasuna jaso zuen, jendearen onarpena eta ondo egindako lanak eta lanaren irauteak eta jarraipenak, HIES Ekimenaz ari naiz noski, ematen duen poztasuna.

* HIES EKIMENENKO PARTAIDEA

.....

"Eguneroko borroka bakartia irabazterakoan, berak agertutako borondate eta kemenak ez du ezustean harrapatu?"

USTEAK USTE

JURADUA

Ditxosozko Juradua martxan jartzen duen legea onartu berria da. Institutio honi buruz zer esan ugari legoke, bai bere baitan suposatzen duenaz, baita biztanlegoak justizia banatzerakoan parte hartzeaz ere; honen oinarri, ondorio, e.a. baina bada gogoeta txiki bat beti bueltaka dudana: "Historia" honek jendearen parte hartze zuzen eta sakona dakar, beste pertsona batekiko erabaki bat hartu, eta bere bizitza edo ondasunean eragin zuzena izango duena gainera, eta ez dut nik ikusten jendea horren konprometitu eta "pringatzeko" gogoz, beti beste norbaitek arazoak konpon ditzan zain gaudenean.

Hauteskunde guztietan arazo berdina dugu mahai eta mahaikideen kontrola eramatea dagokigunok, eta ezaguna da: zozketaren bidez izendatutako gehienek aitzaki bila dabilzala egun batean bozketen zaintze hori ez betetzeko. Eta hain sinple eta motz den eginkizun arruntatik ihes egiten badihardugu, prest egongo al da Juraduko partaidea izatea suertatzen zaiona, aste bete, hamabost egun... edo gehiago frogak aztertu, lekukoak entzun... salatua erruduna den ala ez erabakitze ko?... Eta Institutio hau sortu eta mantentzeak dakarren kostoarekin!!

NEKANE SAN MIGUEL



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behe Tfnoa: 77 01 69

ARRASATEN ALKATE SOZIALISTA BEHAR DUGU


*Tolerantziaren
kultura
bultzatuz
pakea lortuko
dugu*



Jose Ignacio Jimeno alkategala



*Gure esfortzua
auzoetaraino
zabaltzen da*



Alkategaia eta Isalaz Carrasco (San Andreseko alkatea)

MONDRAGON

*gure
bitza*



Elektragailuetan marka guztiak • Armairu enpotratuak, ate korrigarriekin



5 urteko
garantiaz

Zuk behar duzun sukaldea egin dezakegu!!

Berango

CF
CARERA
Sukalde altzariak

Legarre Pabiloia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92


egizabal



Bidekurutzeta, 13
BERGARA
Tfnoa: 76 12 28

poltsak oinetakoak

Ferrerias, 9
ARRASATE
Tfnoa: 79 66 01



Deba erreka berreskuratzeko plana egitea beharrezkoa dela adierazi zuten EKIkoek.

EKI: "Udalean ingurugiroaz arduratzen hasi beharra dago"

EKI ekologista taldearen ustez, ingurugiroari buruzko neurri batzuk hartu behar dira. "Kontua ez da arazoak partxeak jartzea, ez da nahikoa erreka zaborrak kentzea. Arazoak ikuspegi globalatik konpondu behar dira. Udalean gainera, heziketa ekologikoa eta ingurugiroaz arduratuko den tekniko bat falta da. Ingurugiroari buruzko batzorde bat ere sortu beharko litzateke."

Adierazpenak atzo emandako prentsaurrekoan egin zituzten EKIkoek. Horrez gain, talde ekologistak presatatu dituen proposamenen

berri eman zuten eta hauteskundeak pasa ondoren, alderdiei aurkezteko asmoa dutela adierazi zuten. "Beharrezkoa da inguruko Udalak batzea eta Deba erreka berreskuratzeko neurrietan pentsatzen hastea. Errekaren garbiketarako proiektua egin dezala eskatu behar zaio Diputazioari". Informaziorako duten eskubidea ere mintzagai izan zuten EKIkoek eta Udaletxekoei ingurugiroari buruzko informazioa ematea kosta egiten zaiela salatu zuten. Azpiegiturei dagokienez, Maltzaga-Urbina eraikitzeako asmoak oinarririk ez duela esan zuten eta AHT-ren asmoa astakeriatzat jo zuten. Arrasaterekin zerikusia duten

gaiei buruz zera proposatu zuten: "Akei itxi egingo da baina Gipuzkoa osorako beste bat egiteko asmoa dagoenez, beharrezkoa da Udalak errausketaren aurkako jarra hartzera. Zaborraren tratamendurako birziklapena bultzatu behar da." Zabortegei inkontrolatuei dagokienez, itxi egin beharko liratekeela esan zuten. "Harrobien arazo ere konpondu behar da. Ondorio txarrak dutenez, zabalik dauden hirurak itxi egin beharko lirateke eta itxita dauden biendako berreskurapen plana egin." Garraioan oinezkoendako zona peatonalak eta bidegorriak egitea defendatu zuten eta berdeguneak egitearen garrantzia ere aipatu zuten.

Lau Biderako proposamenak

Lau Bideko aparkalekua ren erabilera bultzatzeko, merkatuaren azterketa egingo du Arrasateko Udalak. Asteleheneko gobernu batzordean 50 urterako, urte baterako, nahiz hile baterako kontsezioak egitea proposatu zen, baina lehenago azterketa egitea komeni zela onartu zen azkenean. Etxe espezializatu batek egingo du merkatuaren ikerketa.

Turismorako puntua

Deba Garaiko Mankomunitatearen ekimenez, laster turismoaren informaziorako puntu bat izango du Arrasatek. Oraindik non kokatuko den erabaki barik dagoen arren, segurueneik Gazte Bulegoaren ondoan jarriko da. Kajero antzeko ordenagailu batek emango du Arrasate eta inguruan dauden aukera turistikoekin berri. Udalak 490.000 pta. gastatuko du ordenagailu horren instalakuntzan.

Bide bat itxita

Maiatzaren 29tik ekainaren 30era arte, Arlabanetik Epelera bitartean aldika karril bat itxita izango da goizeko 8etatik gaueko 8etara. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, berriz, bi karrilak izango dira zabalik. Fibradun kablea sartzeko lanak egin behar dituztelako itxiko da karril bat.

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79.52.50

BURGALES JATETXEA


Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



JUXTO ARGAZKIA.

Goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara izango dira zabalik hauteskunde kolegioak.

Hogeiabat zinegotzi aukeratuko dira domekan

Domekan egingo diren hauteskundeetan datozen lau urteetarako Arrasateko udalbatza osatuko duten 21 zinegotziak aukeratuko dira.

Ohi moduan Ferixalekuan (S.F.X ikastolan), Santamainako auzo alkatetzan, San Antolin ikastolan, San Andres eskolan, Erguin eskolan eta Jokin Zaitegi ikastolan eman ahal izango da botoa; goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara. Botoa emateko 30 mahai jarriko dira eta lau interbentoreez gain, zozketaz aukeratutako presidente bat eta bi bokal izango dira mahai bakoitzean. Beti bezala, lagun horiek 9.000 pta inguruko lan-

saria jasoko dute. Albistea idazterakoan, behin betirako errolda Udaletxera heldu gabe zegoen arren, esan behar gutxi gorabehera 20.200 arrasatearrek izango dutela boto-eskubidea.


ARRASATE PRESSEK eta Arrasate Telebistak ere lan egingo dute maiatzaren 28an. ATBk hauteskunderi buruzko programa berezia eskainiko du domekan, gaueko 10etan. ARRASATE PRESSEK, berriz, hauteskunde emaitzei buruzko lau orri aterako ditu. Astelehen goizean, kioskoetan aurkituko duzu lan hori.

Auzoetarako inbertsioak

95eko aurrekontuetan, auzoetarako zuzendu ziren 21 milioiak zertan gastatuko diren erabaki du Udalak. Gesalibarrak 500.000 pta. jasoko ditu, Garagartzak 1.600.000 pta., Bedoñak 2.341.000 pta., San Andreak 1.200.000 pta., Meatzerekek 200.000 pta., Erdikaldeak 1.451.000 pta., Musakolak 1.338.000 pta., San Andreak 1.266.000 pta., Santamainak 1.434.000 pta. eta Uribarririk 5.900.000 pta. Horretaz gain, 1.500.000 pta. zuzenduko dira baserri auzoetarako suteen kontrako erosketak egiteko eta 1.700.000 pta. barandatuak margotzeko.

Elikadura erakusgai

Maiatzaren 30ean Eroskiren "Ekokonsum Elikadura 2000" erakusketa zabalduko da Arrasaten, Lau Bide ondoan. Erakusketa erraldoi hori, elikadura eta osasunari, janarien manipulazio eta kontserbazioari edo elikaduraren teknologiarri buruzko aizango da. Ekainaren 10era arte izango da herrian erakusketa.



GRONDO

elektrizitatea


- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak

- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

BIZIKLETA MARTXA

ARRASATE-OÑATI-ARRASATE



Eguna: **ekainaren 3, larunbata**

Ordua: **goizeko 10ak**

Irteera-tokia: **Herriko Plaza**


**TRENBIDE ZAHARRA
ERABILIZ
BIDEGORRIA ERAIKI**

Antolatzailea

Lurrats Elkartea

Laguntzaileak

Arrasateko Txirrindulari Elkartea
Deba Garaiko Zikloturista Taldea
Dorletako Ama Txirrindulari Eskola
Besaide Mendizale Taldea
Herriko Ikastetxe eta Ikastolak
ASA Argazkilari Taldea
Abaroa Jubilatuen Elkartea,...





Elkarteen arteko Mus Txapelketa-ko finalak jokatu ziren Alkartu elkartearen. Santamaina elkartearen izan zen txapelketa. Leintze bigarren geratu zen, Uribarri hiru-

garren eta Hamaika Gazte elkartearen laugarren. Afarian 100 lagun elkartu ziren, parte hartzaileak eta elkarte bakoitzeko sei kide. Zorionak guztioi!



Al Andalus kultur taldeak **"Ajilimójili"**edo "Gracia y salero" aldizkaria kaleratu du, bigarrenengoz. Bestalde, Al Andalus taldekoak Sevillako "feria de abril"-en egon ziren eta primeran pasa dutela jakin izan dugu. Argazkian Saioa Gomez agertzen da Cordobes jantziaz.

AEKko ikasle batzuk Arrasate Presseko laguntzaile berriak izango dira, hemendik aurrera hilabetero inkestak egingo dute eta. Aste honetakoa izan dute estreinaldikoa. Ongi etorri!!



IZEN PROPIOAK

● Fagor taldeak kontseilu orokorra berritzatzeko batzarra egin zuen maiatzaren 18an. **Juan Jose Ansuategi** da Fagor taldeko lehendakari berria. Aholkulari lana betetzeko beste hauek aukeratu dituzte: **Angel Akizu, Juan Jose Arabaolaza, Jose Manuel Larrañaga, Jose M Saiz, Geregorio Etxabe** eta **Aitor Irure**.

● **Unai Sarabia** arrasatearrak 80 metro eta 150 metro libretan urrezko domina lortu du Gipuzkoako txapelketan. Anoetan jokatu zen txapelketa joan zen astebukaeran. Anartz Azkarraga arrasatearrak, bestalde, zilarrezko domina lortu zuen disko jaurtiketan eta brontzeko pisuan.



Chapime tailerrak

Araba Etorbidea, z/g
Tfnoak.: 79 06 57
79 45 22
ARRASATE



**STOCK-ean DAUDEN
AUTOETAN AUKERA
PAREGABEA!!!**

**MAIATZA
ETA EKAINA
eskaintza
berezia**

AX	345.000	pta.rainoko aurrerapena
ZX	450.000	pta.rainoko aurrerapena
XANTIA ...	480.000	pta.rainoko aurrerapena
XM	650.000	pta.rainoko aurrerapena

Renove plangintza barne



Citroën

Ez duzu sinestuko Citroën-ek zuregatik egin dezakeena.



ZATOK EKOKONSUMERA ETA ON DAGIZULA

EKOKONSUM-ELIKADURA 2000 ERAKUSKETA bisitatzera gonbidatzen zaitugu. Zatok elikadura eta osasunari, janarien manipulazio eta kontserbazioari edota elikadurako teknologia berriei buruz jakitea interesatzen zaizun guztia modu erraz eta atsegin batean ezagutzera.

Zatok EKOKONSUM ELIKADURA 2000 erakusketara. Eta on dagizula.

SARRERA DOAN

Maiatzaren 30etik Ekainaren 10era

Lekua:

LAUBIDE PLAZA . ARRASATE

*Ordutegia:
Lanegunetan*

10etatik 13etara

15etatik 20etara

Jaiegunetan

11etatik 14etara

17etatik 20etara

Antolatzailea:



Debalde

5. zk

DEBA BAILARAKO MERKATAL GEHIGARRIA

Errotalde Jauregia, z/g - 20570 BERGARA Tfnoa: 76 36 61 - Faxa: 76 08 19

Argitaratzaileak: ARRASATE PRESS, BERRIGARA, ELGOIBARREN, ...ETA KITTO!

Publizitatea: Imanol Amiano eta Antxon Iriondo

Tirada: 19.000 ale

Deba Bailarako BANATZAILEA

Berezano auzoa, z/g
☎: 78 25 92 - 78 19 50
OÑATI



METS



- Hergo, Hobby eta
Caravelair
KARABANAK

- Riviera
AUTOKARABANAK
- ERREMOLKEAK

SALMENTA ETA
ALOKAIRUA

Kanping eta karaba-
nantzako osagarriak



Garden center



Olaberria Merkatal Gunea
Tel. / Fax. 88 22 55
20212 OLABERRIA

- 1.200 m²ko erakustokia, jardin eta terrazarako loreekin.
- 300 m²ko erakustokia, barruko landareekin.
- 300 m²ko erakustokia, opari eta dekoraziorako artikuluekin.
- Ezkontza eta jaunartzeetarako den-dena (lore eta opariak).
- 350 m²ko erakustokia, txori, arrain eta laguntzarako animaliekin.
- Jardinetako diseinu, sortzea eta mantenua.

SUKALDEKO ALTZARIEN ETA ELEKTRAGAILUEN ERAKUSKETA

Alpe

MASTER
CADENA



Mariarats, 4
☎ eta Faxa:
88 86 84
20200 BEASAIN

Caravanas Oñate



Zubillaga, 20
20560 OÑATI
Tel. eta Faxa:
71 63 50

Karabanak: Knaus eta Roller
Autokarabanak: Benimar
Mota guztietako Erremolkeak
Mobil-Homeak: Roller eta
Benimar
MTB eta karreratako
bizikletak



Zuretzat eta zure bizikletarentzako akzesorioen
KONPONKETA ETA SALMENTA

Iragarki Merkeak

ETXEBIZITZAK

- Apartamentua alokatzen dut Marbellan udako hilabeteetan eta urte osoan zehar ere. Hondartzaren ondoan. Urbanizazio pribatua pisizinekin. ☎ 10 36 55

- Arrasaten 70m²ko lonja alokatzen da. Ura eta argiarekin. ☎ 79 76 95

SALEROSKETAK

- Collie kumeak salgai. ☎ 79 08 98

- Soinu txikia erosiko nuke. Pili. ☎ 70 13 08

- 1m x 0,7mko teknigrafoa duen delineaorako mahaiak saltzen dit. ☎ 74 22 29

- Bi oheko (1,80m) logela "puentea" saltzen dit. ☎ 74 28 29

- Bigarren eskuko moto-aitzorra erosiko nuke. ☎ 74 22 89

- Kaminuko bizikleta salduko nuke. Egoera onean. Gaizka. ☎ 74 28 56

- CD ROM irakurlea saltzen dut. Estreinatua gabe. SCSI. Hiru abidura. Cd arruntak ere irakurtzen ditu. SONY CDU 55 S. ☎ 74 15 69

- 3,5 pulgadako diskeradun ordenagailu erosiko nuke. Unai. ☎ 74 07 30

IBILGAILUAK

- Kotxea salgai. Opel Corsa Swing SS-U. Oso egoera onean ☎ 77 02 81

- Suzuki DR-BIG 50cc salgai. Iban. ☎ 78 29 79

- Volkswagen Polo GTI salgai. SS-AJ. Egoera onean ☎ 76 38 72

- Volkswagen kakalardoa salgai. IAT pasatu berria. ☎ 94- 673 01 22

LANA

- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Ana. ☎ 76 32 58

- Unzueta jatetxeak hurrengo lanpostuetarako pertsonak behar ditu: sukaldari laguntzailea, kamarero eta asteburuetarako laguntzailea ☎ 945- 44 50 95

- Neska eskalduna behar da etxeko lanak eta haurrak zaintzeko. ☎ 77 01 30



Natura eta uretako aktibitateak

RAFTING / KAINOI JAITSIERAK CANOA - KAYAK / HIDROSPEED

Alto Ebro eta Gallego hibaian (Pirineoetan baseak)
Multiabentura berezia

Eskoletako taldeentzat egitarau bereziak

Vda. Epalza, 10 (Arenal)

☎ 94- 479 05 61

Faxa 94- 415 80 51

48005 BILBO



Manuel J. Perona

ORTODONTZIA
EGOKITUA
ZEURETZAKO

EE.BB.ko Kaliforniako
Roth Williams Center-en diplomatua
R.P.S. 216/94

Haur eta Helduen Ortodontzia

DATO, 19 - 1.
Tfnoak: (945) 23 29 61 / 23 32 12
01005 GASTEIZ


MOBILHOMENTZAKO PARTZELAK SALGAI

Baldintzak bereziak

LIZARRA

Kanplina

Informa zaituz
TI : (948) 546436



BRIKOLAJEA

BASOCO

Etxeko artistarentzat

Elektrizitatea
Sukaldeak
Burdindegia
Kit armairuak
Koadroentzako enmarkeak
Taula ebaketa
Eskulanak



Arana, 26 Tfnoa: 945 - 27 09 33
Gasteiz-Vitoria


MEDIKUNTZA ALTERNATIBORAKO GABINETEA MEDIKUNTZA PREBENTIBOA

Heste-garbigeta
Idorreria
Aerofagia
Gaisotasun kronikoak
Gaitz digestiboak
Gorputzaren garbigeta
Hammer Doktoarearen metodoa
Psikeari laguntzeko terapiak
Numerologia analitikoak:
Pertsonaren azterketa osoa,
orainaldian, iraganean eta
etorkizunean



Joan P. Goikoetxea Doktorea
Paseo de la Senda, 5 - 1. ezk.
Gasteiz-Vitoria Tfnoa: 945 - 14 83 48

**Carrión
música, s.a.**



Instrumentu musikalak
Pianoak: Yamaha, Samick, Kawai...
marka guztiak.
Kitarra elektrikoak, anplifikatzaileak,
teklatuak, MIDI sistarak.
Zerbitzu teknikoak.
Tabernak eta diskotekak soiluz-
tatzen ditugu. P.A. Ekipoak.



Manuel Iradier, 20
☎ (945) 23 07 49
Faxa: 23 14 25
01006 GASTEIZ



M^o NIEVES ALVAREZ GARCIA
AUDIOPROTESISTA

*Ziur al zaude erabiltzen
dituzun audifonoek ent-
zun dezakezun guztia ent-
zuarazten dizutela?*

**EUSKADIKO
ZENTRU
AUDIOPROTESIKOA**

*Behar bezalako adaptazio
batek entzuteko ahalme-
nak
mugatzen ditu.*

**DATO, 18 - 4. TFNOA. (945) 13 76 01
01005 GASTEIZ**

ITSAS MENDI



karabanak

Autokarabanak



ANDOAIN

Tfnoa: 59 32 90

**Bariante
ondoan**

Karabanak



Autokarabanen alokairua

Erremolkeak



Furgoneten eraldaketa

EKAINA *eta* Aste Zoragarriak

Lehenengo astea

KONFEKZIOA

Umeen Konjunto eta Jantziak. • Blazer eta Parka.
(Emakumeak). • Americana eta Parka (Gizonak).

ETXEA Edredoiak

KIROLA Ziklismoa

Bigarren astea

KONFEKZIOA

Umeen Blusa, Punto eta Alkondara. • Blusa/Punto
(Emakumeak). • Punto eta Alkondara (Gizonak).

ETXEA Mantak

KIROLA Tenisa

Hirugarren astea

KONFEKZIOA

Gizonezko eta umeen Prakak, Bakeroak,
Txandala eta Bermudak. • Emakumeen
Prakak, Bakeroak, Gona eta Soinekoak.

ETXEA Oherako arropak

KIROLA Kanpamentua eta Kanpinga

Laugarren astea

KONFEKZIOA

Ume, emakume eta gizonentzako
Kamiseta, Polo eta Bainujantzia.

ETXEA Gortinak

KIROLA Zapatilla eta Bainujantzia

**ASTERO, gero
eta GEHIAGO**




**PREZIO
BEREZZZ-
ZZZIAK...!**



ECOCENTRO

GASTEIZ • LOGROÑO • PALENCIA • SANTURTZI • LAUDIO • HUELVA

ZURE
ETXEBIZITZA



ETXEBIZITZA EROSTEKO MODURIK ERRAZENA

Hipoteka baten bila dabilzan guztiei, KUTXAREN HIPOTEKA aurkezten diegu. Urte askotako geure esperientzia guztia bere baitan biltzen duen hipoteka. Arazoak konpontzeko pentsatutako hipoteka. Ez arazoak sortzeko.

- INTERES-TASARENGATIK.
- AMORTIZAZIO-EPEARENGATIK.
- FINANTZAKETA-ZENBATEKOARENGATIK.
- Eta ZERBITZURIK ONENA eta AHOLKULARITZARIK OSOENA eskaintzen dizugulako. "ETXEBIZITZA EROSTEKO GIDALIBURU ERRAZA" barne dela, gure edozein bulegotan eskura dezakezuna.

Etxebizitza erosteko modurik errazena sakon-sakonetik ezagutu nahi baduzu, zatoz zeure ohiko **kutxa** bulegora edota deitu **900 41 20 20** telefonora. Eta hitzegingo dugu. Hipoteka baten bila bazenbiltzan, azkenean, ZORIONAK.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBAR

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Azken txanpan Zaldibar txapelketa


Final laurdenetara heldu da Zaldibar Txapelketa. Zuloak, Argi Ibili, Trikiti, Cervecera Leintz, Fosforos, Suministros Ugarte, AC Surcos eta Adelaida Haizea sailkatu dira eta partidu bakarrean erabakiko da kanporaketa.

Hirugarren fasean Fosforos eta AC Surcosek egindako lana azpimarratu behar da, jokaturako hiru partiduak irabazi dituzte. Fosforos, gainera, 20 golekin talde golea-tzaileena izan da. AC Surcosek 6 punturekin bukatu arren, 9 gol baino ez ditu sartu eta 4 jaso.

Hirugarren faseko azken jardunaldian ezusterik ere egon zen. B taldean Irati STSk Cervecera

Leintz taldearen kontra jokatu zuen eta Iratik 4 eta 3 irabazi zuen. Bestalde, Trikiti eta Orlando Piratas izan genituen nor baino nor. Trikitik sailkatzeko hiru goleko aldea behar zuen eta 11 eta 3 irabazi zion Orlando Piratas taldeari. Horrenbesteko aldeaz irabaztea ez dirudi oso normala eta Irati STS-koek "tongoa" egon zela uste dute. Tongoa frogatzen ezina denez, horren aurrean ezin dute ezer egin antolatzaileek.

Gauzak horrela, Trikitik eta Cervecera Leintzek lortu dute final laurdenetako txartela eta prebisio guztiak hautsiz Irati STS txapelketatik kanpo geratu da.



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kanto, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

Hirugarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	3	3	0	0	20	5	6
ARGI IBILI	3	2	0	1	12	7	4
LOS HEREDIA	3	1	0	2	6	11	2
MIKELOS	3	0	0	3	6	21	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	3	2	0	1	19	12	4
CER LEINTZ	3	2	0	1	9	6	4
IRATI STS	3	2	0	1	15	13	4
ORLANDO PIRATAS	3	0	0	3	7	19	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	3	2	1	0	12	10	5
SUM UGARTE	3	2	0	1	13	9	4
SOKOAKOAK	3	1	1	1	11	11	3
EQUUS BTR	3	0	0	3	10	16	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	3	3	0	0	9	4	6
ADELAIDA HAIZEA	3	2	0	1	9	5	4
TOTEM	3	0	1	2	8	10	4
PERRAHOTSA	3	0	1	2	6	13	1

Uribe auzoako Futbito Txapelketa

A Taldea

Exc Lete	14
Berza Mutante	13
Munar Txiki	13
Leya	13
A Las 9 No	12
La Banda	7
Borrock 'n Roll	5
Energizer	5
D.K.B.	5
CD Arko	2
Holokaustro Kanibal	0

B taldea

Jotakabau	15
Arrasate Kirolak	14
Tronkoteak	14
Blackburn	11
Baneuko	9
Eztanda egin arte	8
Trotabares	6
Los Intocables	5
Pier Nodoyuna	4
Amaral	4
Orkatz	0

D taldea

Equus BTR	14
Uglys Txinato	13
Los Dimy	12
No Comment	10
Arrasate Zoo	10
Balon Rojo	8
Ke Oxtias	7
Gazte Txokoa	6
Astoeb billa	5
Garajauke	3
Eman bidea 0	

E Taldea

Kamasutra	14
Hirei	13
Dribling	13
The Barrio	12
Borrock 'n Roll Prom	10
Koka Juniors	9
Ganbelas	7
Extintors Foruen	4
Telleria Auto Eskola	4
Lo + X	2
Kurtze Txiki	0

F taldea

Salenco y konpañia	17
Lautherbrunnen	15
Gallinero	11
Bodega Anboto	11
Txeyenex	9
Berango sukaldeak	7
Corazon de Encina	6
Elisabeth	5
Iluna Taberna	4
Euskal Suporters	2

Ludotekari lanpostua

- Santamainako ludoteka dinamizatzeko
- Egun erdiko kontratua

Baldintzak

- 18 urtetik gora izatea
- Ume eta gaztetxoekin esperientzia
- Euskara ongi menperatzea



Kurrikulumak jasotzeko epea: Ekainaren 2a baino lehen.

Txatxilipurdiko bulegoetan. Pablo Uranga, 5 • Tfnoa: 79 54 46 • ARRASATE



Zaldibarko txapelketan lau partidu jokatu dira zapatu eta domeka bitartean. Zapatuan 11etan Zuloak eta Argi Ibili izango dira lehian, 12etan Trikiti eta Adelaida Haizea. Domekan, berriz, 11etan AC Surcosek eta Cervecería Leintzek elkarren kontra jokatu beharko dute eta Fosforosen arerioa, Suministros Ugarte izango da.

BELARRIRA

◆ **Oporrak.** Canacho Zaldibarrek epeileak oporrak hartu ditu eta Marokora joan da hilabeterako, beraz, honendako bukatu da txapelketa. Dena dela, Carabias, Aizkora, Perez eta Andoni Zurbano jarraitu egingo dute epeile lanetan.

◆ **Uribe Auzoa.** Uribe Auzoa txapelketan bi jardunaldi baino ez dira falta lehen fasea bukatzeko. Hurrengo faserako 16 talde sailkatuko dira. Multzo bakoitzeko lehenengo hirurak eta laugarren onena. Kanporaketak neurketa bakarrean erabakiko dira.

◆ **Atsedena.** Uribe Auzoa txapelketako 10. jardunaldian Borrock 'n Roll, Arrasate Kirolak, Uglys Txinato, Borrock 'n Roll Promesas eta Corazon de Encina taldeek atsedena izango dute.

◆ **Golak.** Zaldibar txapelketan 60 gol sartu dira 3. faseko azken jardunaldian. Uribe auzoako 9. jardunaldian, oster, 233 gol.

ASTEBURU HONETAN URIBEN

Larunbata 27

Iturripe A

- 9.00 CD Arko - Munar Txiki
- 10.00 Equis BTR - Garajauke
- 11.00 Trotabares - Los Intocables
- 12.00 Berza Mutante - Leya
- 13.00 Blacburn - Amaral
- 14.00 Koka Juniors - Hirei
- 15.00 Iluna Taberna - Sukar
- 16.00 Ke Oxtias - Los Dimy
- 17.00 The Barrio - Ganbelas
- 18.00 Borrock 'n Roll - A Las 9 No
- 19.00 Borrock 'n Roll Pro - Lo + X

Iturripe B

- 14.00 Eztanda egin arte - Pier Nodoyuna
- 15.00 Eman Bidea - Balon Rojo

16.00 Lautherbrunnen - Berango Sukaldeak

17.00 Gazte Txokoa - No Comment

18.00 Gallinero - Elisabeth

19.00 Uglys Txinato - Arrasate Zoo

Igandea 28

Iturripe A

- 10.00 Corazon de Encina - Bodega Anboto
- 11.00 Telleria Auto Eskola - Extintors Foruen
- 12.00 Arrasate Kirolak - Tronkoteak
- 13.00 La Banda - Energizer

Iturripe B

- 10.00 Holokaustro Kanibal - DKB
- 11.00 Kamasutra - Dribling
- 12.00 Txeyenex - Euskal Suporters
- 13.00 Orkatz - Baneuko

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Alkoholari stop

María Agirre

1936. urtea zen. Zirujau bat eta burtsako artekari bat New York-eko taberna batean bildu ziren. Biek arazo bera zuten: alkoholikoak ziren. Hori dela eta, alkoholarekin zuten arazoak hitzegiten hasi eta handik bi ordura batek zera esan zion besteari: "aizu, hitzegiten egon garen denboran ez edatea lortu dugu". Hausnarketa horri esker, bi lagun horiek mundu guztian ezaguna den talde terapia asmatu zuten: Alkoholiko Anonimoak izenekoa.

Arrasaten orain dela hogeitau urte eratu zen Alkoholiko Anonimoen taldea. Hainbat arrasatearrek, gizon nahiz emakumeek, talde horretan parte hartuz lortu dute alkoholarekin zuten arazoa gainditzea. Duda barik, taldeko terapiak eragina du. Hitzeginez eta taldeko partaideen laguntzaz Jesus, J. Ignacio eta Jabierrek edanarekin zuten katea haustea lortu dute. Betirako? Auskalo, batek daki eta bihar zer gertatuko den. Horregatik, partaideek ez dute bizi izandakoa ahaztu eta beti esal-

di honekin hasten dute asteroko batzarra: Nik ... dut ize-na eta alkoholikoa naiz.


KONTURATU BARIK, ALKOHOLIKO

Jesusek 55 urte ditu eta berak esaten duenez, gaztetan hasi zen edaten. Alkoholiko gehienak bezala, ez daki zergatik. "Apur bat lotsatia nintzen eta konturatu nintzen edanez gero, neskei dantza eskatzeko lotsarik ez nuela izaten. Gero txikiteoaren ohi-tura etorri zen eta apurka-apurka gehiago edaten hasi nintzen. Ezkondu nintzen-rako alkoholak nire bizitzan agintzen zuen eta ondorioz, etxeko giroa erabat okertu zen. Hori dela eta, emazteak banaketa egiteko tramiteak hasi zituen eta denboraldi batez amaren etxean bizi behar izan nuen. Gero, gehiago ez nuela edango agindu eta berriz etxera bueltatu nintzen. Hala ere, edaten jarraitu nuen eta behin iskanbila gogor baten ondoren, Santa Agedako ospitale psikiatrikora sartzea eskatu nuen eta han egon nintzen hilabete batez. Ospitalean Alkoholiko Anonimoetan egiten diren antzerako bilerak egiten ziren eta handik irten-dakoan beherala sartu nintzen Arrasatekoan. Bederatzi urte pasa dira azken tragoa hartu nuenetik. Egindakoa eginda dago baina ez dut infernu

hura berriz bizi nahi".

Jose Ignaciok 48 urte ditu eta orain dela lau urte A.A taldean sartu zenetik, gus-tora bizi da. "Gaztetxo-a nintzela etxean egu-nero arraultza gorringoa eta ardoa ematen zidaten, hura ahotserako ona zela eta. Egunero, solfeora joan baino lehen tragotxo-a hartzen nuen eta gustatu egiten zitzai-dan. Gero gazte denbo-rak etorri ziren eta neskekin lotsatu barik ber-ba egin ahal iza-teko edan egiten nuen. Ezkondu nint-zenerako ezin nuen alko-hola kontrolatu. Izkutuan edaten nuen eta etxean izu-garrizko istiluak eragiten nituen. Goizetan jeiki eta ispi-lura begiraterakoan pen-tsatzten nuen: baina zer egi-ten dut nik! Nire buruari tiro bat botatzeko gogo-a sentitzen nuen eta berriz ez nuela edan-go zin egiten nuen baina ezi-nezkoa zen. Behin irtenbide bat emateko eskatu nion medi-ku bati eta, A.A-n sartzea gomendatu zidan".

Jabierrek 33 urte ditu eta honi ere antzerakoa gertatu zitzaion. "Gaztetan hasi nintzen edaten. Gero kanpora joan nintzen ikastera eta han berdin segi nuen baina azterketa garaian edaten ez nuenez, alkohola kontrolatzen nuela pentsatzen nuen. Ezkondu ondo-





Alkoholiko Anonimoetako partaideek garrantzia ematen diote anonimotasuna gordetzeari.

egin eta hori nola lortu zuen galdetu nion. Berak aipatu zidan A.A-n sartzeko aukera baina alkohola uzteko nahia izan behar nuela garbi utzi zidan. Orain dela sei hilabete konpromezu hori hartu nuen eta ordutik hemen nago, eguneko 24 orduak ezin dudala edan pentsatzen baina nire bizitzarekin zer egiten dudan badakidala”.

ZEIN DA ALKOHOLIKOA?

Hiru lagun hauen ustez, edaten den alkohol kopuruak askotan ez du zerikusirik. “30 txikito edateak ez du esan nahi pertsona hori alkoholikoa denik eta akaso hiru edaten dituen da alkoholikoa. Alkohola norbera baino gehiago bada eta bakoitzaren bizitzan agintzen badu, pertsona hori alkoholikoa da”. Hala ere, gehienek esperientziak erakusten du zaila dela arazoak jabetzea. “Gainera estereotipoen arazoa dago. Alkoholikoaren irudia kalean etzanda eta mozkortuta dagoen per-

tsonekin lotzen da. Askok uste du pertsona marginalen arazoa dela”.

HITZEGINEZ, EDANA AHAZTU

A.A taldean, norberak bere esperientzia eta egunero gorabeherak kontatzen ditu. Hori bai, beti egi osoa esanez eta taldekoen anonimotasuna gordeaz. Partaideen esanetan taldeak izugarrizko indarra ematen du eta apurka-apurka arazoa gaingintuz joaten dira. “Gainera, taldekoen telefono zen-

bakiak ditugu eta txarto sentitzen bagara, telefonoz deitzen diogu laguntza eskatzeko”.

Kontatzea erraza da baina benetan uztea ez. Ahalegina izugarria izaten da eta horregatik, terapia jarraitzen dutenek alkohol tanta bat ere ez edatera behartzen dute euren burua. “Gure lemak zera esaten du: lehen tragoak mozkortzen gaitu. Gainera gu bizi guztian izango gara alkoholiko. Alkoholismoak ez du sendabiderik baina bai irtenbidea, ez edatea”.

Nora jo?

Lerro hauek irakurri ondoren norbait beharrean sentitzen bada eta A.A-n laguntza nahi badu bi gauza bakarrik egin behar ditu. Lehena zaila da, ez edateko konpromezua hartu eta bigarrena oso erraza, **61 93 38** telefonora deitu. Han Arrasateko taldearekin harremanetan jarriko zaituzte.

Service
ence

ren,
a s k o
e d a t e n
hasi nintzen
eta bapatean
konturatu nintzen
ezker ez zidala axola: ez
emazteak eta semeak, ez
lanak... Goizetan ispilura begi-
ratzen nuenean pena senti-
zen nuen. Nik ez nion edate-
ari utzi nahi baina buruhaus-
teekin bukatuko zuen irten-
bidea bilatu nahi nuen. Behin
alkoholarekin arazoak izan
zituenez ezagun batekin topo

● Alfonso Bolado

“Gogorra da Algerian emakume izatea”

Islamologoa da Alfonso Bolado kataluniarra. Hitzak esaten duen moduan, islamarekin zerikusia duten gaietan dakiena da islamologoa. Arabiera hitzegiten du, islama (erlijioa) ere ezagutzen du eta jakina, kultura hori duten hainbat herritan gertatzen dena egunez-egun jarraitzen du. Zutik-en bidez, hitzaldi bat eman zuen eta Algerian gertatzen ari dena kontatu zuen.

- Non ikasten da islamologia?

- Islamologoa naiz eta horrek esan nahi du islama ezagutzen dudala eta ez mundu arabiarra. Islama kultura eta erlijio bat da herri arabiarretan asko zabaldu dena. Arabiarra izatea etnia bateko partaide izatea da, hizkuntza arabiarra hitzegiten duten etniko partaidea. Turkiarrak, adibidez, musulmanak dira baina ez arabiarrek.

Non ikasi dudana? Ez dakit zergatik gaztetan hasi nintzen nire kontura ikasten. Estatu espainiarrean ez dago horretarako toki berezirik.

- Heltzen zaigun informazioaren arabera Algeriako egoera txarra da. Zer gertatzen da?

- Orokorrean, bi proiekturen arteko borroka dagoela esan daiteke. Alde batean, mendebaldeko tradizioaz zerikusia duen proiektua dago eta bestean, pentsatzeko era islamiarrarekin lotuta dagoena. Azken horrek, sharian oinarrituta antolatuta nahi ditu gizartea eta botere politikoa. Sharia jainkoaren legea da, Alak Mahomaren bidez Koranean isladatu zuena. Algeriako egoera gogorra da, biolentzia politikoa handia dago baina ez gerra zibilik.

- Zergatik gorrotatzen dute mendebaldea?

- Batez ere gizarte mendebaldarrak Algeriako islamismoaren aurkako jarrera hartu duelako. Algeriako arazo ismalista manipulatu egiten da mendebaldeko komunikabideetan. Frantziak, adibidez, Algeriako erregimen militarri laguntza ematen dio eta horrek, talde batzuk mendebaldarrak erasotzera bultzatzen ditu. Eraso horiek ez dute zerikusirik tradizio islamiarrarekin. Gainera, tal-



de guztiak saku berean sartzen ditugu eta denak fanatikotzat jo.

- Emakumeen aurkako jarrera nondik dator?

- Horrekin ere gauza bera gertatzen da. Emakumeren bat hiltzen dutenean, GIAK (Taldea islamiko armatuak) hil duela esaten da baina askotan familien arteko gorabeherengatik edo mendekua egiteko hiltzen dira. Adibidez, aita batek bere alabaren bizitzeko era oso arina dela uste du eta alaba hiltzen du. Kasetariak ere ez ditu GIAK bakarrik hiltzen, botereari kritika egiten diotenak ere hiltzen dituzte.

Emakumeekin gertatzen dena da gaur egun lehen egin ezin zitezkeen gauzak egin daitezkeela. 1984. urtean, sharian

oinarrituriko familiako kodea arautu zen eta horrekin dena da posible. Algerian emakumea izatea oso gogorra da.

- Zertan bukatuko da Algeriako gatazka?

- Une honetan, ez egerzi-toak ezta islamistek ere ez dute irabazteko aukerarik. Esaten denez akordioaren bat egongo da baina islamistek pakturen bat egiten badute gizartea islamizatu egingo da, hori oinarritzkoa da eta euren dako. Nire ustez, ismalistek irabaziko dute.

- Algeriako beste herri batzuetara zabal daiteke?

- Bai, Tunezera, adibidez. Marokkora zabaltzea, berriz, zailagoa da, bertako islamismoa ez da hain gogorra eta.

● **“Algeriako arazo ismalista manipulatu egiten da mendebaldeko komunikabideetan eta Frantziak Algeriako erregimen militarri laguntza ematen dio”.**


Erantzukizuna



- 1 Arrasatek ideia berriak behar ditu.
- 2 Talde gazte bat herri dinamiko batentzat.
- 3 Etxebizitzaren arazoa konpontzeko "giltza" daukagu: imaginazioa, lana...
- 4 Toleraezintasuna eta zatiketaren aurka.
- 5 Euskara, denon ondarea.
- 6 Langabeziaren aurka soluziodun instituzioak.
- 7 Batu zaitez erantzukizunari.



Isabel Gallastegi.



HERRI BATASUNA



ARRASATE
Obando
eta
Ezkabiar



G

Gerra aurretik makina bat saio eskaintzen zuen Arrasateko bandak eta 1932ko abuztuaren 6an ateratakoa duzue erretratu hau, kontzertua ematera joan zirenean. Goitik eta ezkerretik hasita, Jose Mari Lasagabaster, Donato Arregi, Inazio Olazabal, Gillermo

Juldain eta Segundo Vitoria. Hipolito Uriarte, Jose Mari Arriaran, Eloi Urzelai, Sampedro, Aranbarri eta Azkoaga. Jesus Ortuoste, Herrera, Santi Olazabal, Nikolas Zarraoa, Carlos Andres, Fidel Amozarrain, Adolfo Gomez, Herrera, Mariano

Azkarate, Fernando Amozarrain, Luis Agirre, Miguel Sampedro, Justo Munarriz (zuzendaria), Guillermo Lasagabaster, Jose Lasa, Santi Otxandiano, Rufo Aranbarri eta Zeferin Mendizabal. Makurtuta, Bixente Aranbarri.

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

IRATI
TABERNA

Ferrerias kalea • Tfnoa: 79 56 11
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegikorra

ARRASATE

Mondra futbol taldeko emakumeak gero eta hobeto

Mondrako emakumeak ligan 3. postuan geratu dira. Lehen bueltan 14 neurketa jokatu zituzten, horietatik 10 irabazi, Dunboa, lagun Onak, Lizardi, UDA, Elgoibar Intxaurri, Ostadar, Antoniano, Aloñamendi eta Bergararen kontra; bi galdu Zumaiako eta Zumarragarekin eta bi berdinu Alde Zaharra eta Intxaurrondorekin. Bigarren bueltan, ostera, Dunboa, Lagun Onak eta Elgoibarren kontra galdu egin zuten eta gaitzako neurketak irabazi. Esti Loiti jokalaria eta bigarren entrenatzaileak denboraldiko balantzea egin du.



Mondra emakume taldeko jokariak.

- Nolakoa izan da liga?

- Irregular samarra, espe-ro baino okerragoa behar bada. Izan ere aldaketa asko izan da taldean eta igarri egin ditugu, lana egiteko era aldatu da erabat eta onerako izan den arren, emaitzetan ez da nahi beste nabaritu. Hala ere, 3. tokian bukatu dugu. Kontuan hartuta 18 talde ibili garela lehian, 3. en bukatzea ez dago hain txarto. Gainera ligako etxeko partidu guztiak irabazi ditugu eta hutsak kanpoko partiduetan etorri dira.

- Aldaketarik izan da?

- Batetik jokalaria berriak sartu dira eta bestetik entrenatzaile aldaketa egon da. Juan Inazio Garaik hartu zuen taldearen ardura nire lagun-

tzaz. Juaninak izugarritzko lana egin du taldearen alde. Futboleko jokatzen erakutsi digu, fisikoki zein teknikoki talde sendoena osatzeko lan ikaragarria egin du. Hiru entrenamendu izan ditugu asteen eta arlo guztiak landu ditugu abiadura, estrategiak... Gudan sinestu du eta hori eskertzekoa da.

- Horrenbeste seriotasunez jendeak ondo erantzun du?

- Primeran erantzun dute jokariak. 18 hasi ginen, bik taldea utzi zuten eta gainontzekoek ez dute sekula kale egin. Entrenamendu guztietara joan dira eta partiduetan duten guztia eman dute. Lesioak ere errespetatu gaituztela esan

behar. 16 jokalariko talde murriztua izan dugunez, jokalaria berriei beharbada gehiegi eskatu diegu.

- Orain Euskadiko kopan jokatzen ari zarete, nola doa?

- Antolatzen den lehen aldia da. Lehen kanporaketa inguruko taldeekin erabaki zen, samur gaitzitu genuen eta une honetan final laurdenetan murgildurik gaude. 8 talde gabiltza eta joan zen domekan Sondikaren kontra neurtu genituen indarrak, galdu egin genuen 2 eta 5. Datorren zapatuan bueltako partidua jokatuko dugu eta 3 goleko aldeaz irabazi behar dugu finalerdietara joan ahal izateko, gatxa izango da baina esperantza ez dugu galdu.

- Nola ikusten duzue harrobia?

- Harrobia nahiko ondo dator. Neskek gero eta gehiago hartzen dute parte eta hori taldearentzat eta futbolarentzat ona da. Nesken futbito txapelketa ere hortxe dago eta eskaparate ona da jokariak ikusteko. Dena dela, gazteak animatzeko deia luzatzea gustatuko litzaidake. Mondrako emakume taldeak ate guztiak zabalik ditu, sekula ez dugu oztoporik jarri eta etorritako guztiak ongietorriak izan dira. Uztailen entrenamendu batzuk egingo ditugu, jende berria frogatzeko; orduan, nola egiten dugun lan ikusi eta gustatzen bazaie gelditzeko aukera izango dute gazteek.

AVICOLA IRAIN

Arraultza freskoen banaketa - Arraultza pasteurizatuak-Urdaitegia

Tfnoa (943) 72 43 90 - 76 63 03 Faxa (943) 72 43 90
Ezkió Itsaso - Antzuola

Saskibaloit taldea hurrengo denboraldiari aurre egiteko gertu

Arrasate eskubaloit taldeak, Urbina maltzaga babeslearen laguntza jasoko du beste urtebetez eta Basconiaren ordekoa izateko sinatu duen akordioa ofiziala egin zuen asteazkenean goizeko 10etan Monterronen emandako prentsaurrekoan. Babeslea izateak datorren denboraldia prestatzeko askatasuna ematen dio Arrasateko taldeari. Basconiarekin sinatutako akordioak, bestalde, aldaketa asko ekarriko du taldean. Gasteiztik 6 jokalarit berri etorriko dira, 23 urte azpiko mutilak gehienak. Pedro Rodriguez, Iñaki Gomez, Carbajosa eta Cazorla zurrak dira. Sorpresa jokalarit atzeritarrak izango da, oraindik ez dute erabaki nor izango den baina baliteke ekialdeko jokalariren bat izatea.

Iazko taldetik, berriz, 4



Arrasateko saskibaloit taldekoek asteazkenean eman zuten prentsaurrekoa.

baja daude David Scott, Otxoa, Saez de Viteri eta Pastor. Dena dela, hauek ez dira baja bakarrak izango. Txus Brizuela entrenatzaileak ere ez du taldean jarraituko eta bere lekua Jose Angel Samaniegok beteko du. Donostiako entrenatzailea Juven eta Askatuak en ibilitakoa da eta

iaz Euskal Herriko Unibertsitateko saskibaloit taldea entrenatu zuen. Samaniegok datorren astean izango du taldeko jokalariekin lehen harremana eta azkar erabaki beharko du zein jokalarik osatuko duten taldea.

Gasteizko taldeak jokalaritak eta entrenatzailea jar-

tzeaz gain, talde medikua ere eskainiko dio Arrasatekoari eta hemengo entrenatzaileek Basconiak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute. Gainera, ACBko Basconia taldeak partidu bat jokatu du Arrasaten, eta ACBko jokalaritak Arrasateko ikastetxeetara etorriko dira neska-mutilei hitzaldiak emateko.

Argi dagoenez, Arrasateko Urbina Maltzaga saskibaloit taldea datorren denboraldiari aurre egiteko gertu dago eta izango dituen aldaketak talde sendoa osatzeko balioko dutenez, helburuak ere zabalagoak izango dira. Beharbada ez ACBra igotzea baina bai EBA ligan aurreko postuetan ibiltzea.

Arrasate taldeko ordezkariak ilusionatuta daude erronka berri honen aurrean.

Nesken Futbito Txapelketa

Nesken txapelketako 6. jardunaldia jokatu da astebukaera honetan eta

golak izan dira nagusi. Las mels taldeak 16 gol sartu dizkio B.G taldeari eta sailka-

penean jaun eta jabe da. Orkatzek ere astindu ederra eman zion Ireklasi 7 gol sartuz eta Txatxolintxixau ere maila ona erakusten ari da, 6 eta 1 irabazi zion Izenbakuerei. Datorren zapatuan 7. jardunaldia jokatu da goizeko 9etatik ordubata arte eta arratsaldean atzeratuta zeu-

den beste bi partidu, 4etan Karpe Diem eta Ireklasen artekoa eta 5etan Zure atzetik eta Zepaesstandon.

Nesken txapelketako helburuetariko bat euskaraz hitzegitea izanik, antolatzaileek horixe bera egiten saia daitezela eskatu nahi diete jokalariei.

Sailkapena

	Partidua	Alde	Kontra	Puntuak
Las Mels	6	52	8	12
Txakolintxixau	6	41	7	12
Joixon Bertan	6	29	25	7
Orkatx	5	28	17	6
Izenbakuak	5	20	16	6
Zure Atzetik	5	7	27	5
Zepaesstandon	4	15	15	4
Ireklasa	5	5	28	0
B.G	6	7	54	0
Karpe Diem	4	4	21	-8

Hurrengo neurketak

9.00	Karpe Diem - Izenbakuak
10.00	B.G - Ireklasa
11.00	Las Mels - Txakolintxixau
12.00	Joixon Bertan - Zepaesstandon
13.00	Orkatx - Zure Atzetik
16.00	Karpe Diem - Ireklasa
17.00	Zure Atzetik - Zepaesstandon

“Harreman” Arrasateko Hirugarren Mundu taldea zuengandik hurbilago

“**H**arreman” munduko herrialde kaltetuen arazo

larriak ezagutzera eman eta sentiberazteko lan egiten duen elkarteak, honako ekintzak antolatu zituen 1994. urtean:

- “Unai” proiektua. Jendearen artean jaso duen harre-
ra ona da aipatzekoa.


- 0’7aren eskaria Udalari. Arrasateko Udalari aurrekontuen %0’7a eskatzeko sinadura bilketa bat antolatu genuen, eta egia esan, emaitza oso ona izan zen: mila sinaduratik gora.

Argi dago honelako ekintzak eragin egokia izan dutela erakundeen artean. Arrasatek, adibidez, 2 milioi eman zituen 1993. urtean, bost



proiektutan banatuta bat gehiago 1994.ean, eta aurten 5 milioira iritsi da.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu ondorengo ekintzetan parte hartu duten



Zer da Harreman?

Harreman EEG(ONG) bat da eta ezagutu nahi gaituen edonorentzat dago zabalik. Hauek dira gure asmoak:

- 1) Arrasate Herri garapenerako laguntzak eta elkarlanerako proiektuak aurkeztea edo baita beste ONGn bidez (Elkarte ez gubernalmentalak).
- 2) Proiektuak bideratzeko finantziabideak aurkitzea eta dirua iritsi behar den tokietara iritsi dadin jarraipen egokia egitea.
- 3) Proiektuen jarraipenaren informazioa jaso eta Arrasateko herriari eskaini.
- 4) Hirugarren munduaren egoerari buruzko kontzientziazte eta sentsibilizatzeko kanpainak burutu, elkartasuna, kultura desberdinak....
- 5) Kooperazio eta garapenerako erakundeetako sareak ezagutu eta parte hartu.
- 6) Orain arte aipatutako helburuekin lotura izan dezakeen beste ekintza eta bereziki gure planetako lurralde baztertuekin elkarlaguntza izan daitekeen guztia.

persona guztiei:

- %0’7aren aldeko astea: ikastetxeetan emandako hitzaldiak, bideo-hizketaldiak, bizikleta bira....

- Azaroan antolatutako “3. munduari buruzko astea”, Mozanbiken eskolak eraikitzeke proiektuarendako artisa-
u salmenta-erakusketa, Unai proiektuaren berri-ema-
naldia.

- Dokumentazio lana Udal liburutegiaren laguntzaz.



Ikerne Heriz
Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Ramon Sacristan Fernandez

“Zirkoa hiltzear dago”


Ramon Sacristan erroxarra “Circo Holliday”ko burua da. Gerrate zibilean sortu zuten bere arbasoek gaur egun hiltzear dagoen zirko familiar hau. Administrazioak jartzen dien zergeri aurre egin ezinik, etorkizun beltza somatzen du karpaz azpian lan egiten duten bere 29 lagunentzat.

— Familiatik datorren negozioa da zirko hau?

— Bai, Fernandez familiaren zazpigarren belaunaldia da. Zirkoa gerrate zibilean sortu zuten nire arbasoek eta geroztik negozio honetan dihardugu familia osoa. Orain, lau belaunaldi bizi gara zirkoan; nire ama, ni, seme-alabak eta nire lobak. Langile eta senitartekoan artean, 29 lagun bizi gara zazpi karabanan.

— Zirkoaren urrezko urteak urruti geratu omen dira. Zer diozu?

— Dudarik gabe. Urte onenak 65etik 80ra bitartekoak izan ziren. Jendea orain ez da zirkoera etortzen; gaur 50 lagun besterik ez dira etorri. Ez dakit, Jaungoikoak ez badu konpontzen, Kultura sailak ez badigu laguntzen edo udalek ez badigute zirkoa montatzearen kobratzen dizkiguten zergak jeisten, zirkoa hiltzear dago.



— Zurea bezalako zirko familiar batek zein oztopori egin behar dio aurre?

— Lan handia egin behar izaten dugu guztiok atzerriko zirkoek zapal ez gaitzaten. Bestalde, Arrasatera heldu bezain laister eta zirkoa montatu baino lehen, lurzoruagatik, joan eta etorrietan, gasolinaren truke eta argi gastuengatik, 225.000 pta ordaindu behar izan dugu. Oporrik ere ez dugu, zirkoak ezin du atsedean hartu. Oso bizitza gogorra da eta administrazioak ez digu laguntzen.

— Eta zirkoak ematen du

ordaindu beharreko guzti hori?

— Tristeza da, baina ez. Kultur sailak diru-laguntza batzuk eman zizkigun iaz baino aurtun kendu egin dizkigute. “Testigo Directo” programan azaldu ginen eta han zera esaten genuen; zirkoa hiltzen ari dela ezin diegulari horrelako zerga zama handieri aurre egin sarreren prezioa igo barik, eta sarreren prezioa igota ere, ez dugu behar beste diru irabazten. Ostira-lean 50 lagun etorri ziren zirkoan, beraz, 50.000 pta atera genituen eta ostegunean, 30 lagun besterik ez, 30.000 pta; guztira 80.000 pta. Asteburuan

jende gehiago ez badator ez gara 225.000 ptara helduko.

— Zuen zirkoan emanaldi batean zein ikuskizun eskaintzen duzue?

— Malabarrek hasten gara, gero kontortsio eta magia numero bat egiten dugu. Kontortionistak eta magoak jantzia aldatzen duten bitartean, Micky Mouse ateratzen da eta ondoren, ponyak sartzen dira pista. “Fakir” numero bat ere badugu, “Tele 5”ko “La Batalla de las Estrellas” saioan irabazle aterazena. Gorilaz mozturrotutako gizon bat ere ateratzen da eta hiru urteko ume batek, Inñigok, gorila hori hezitzen duenaren itxura egiten du. Atsedendia baino lehen Caniche arrazako txakur batzuren egiten dugu numeroa. Atsedendia eta gero neskatxo batek trapezioaren numeroa egiten du, Montecarloko lehen saria irabazi du gainera, eta azkenik, telebistako pertsonaiak eta pailazoak ateratzen dira. Partehartzaile guztiak familiakoak dira. Gureak ez dauka zirko handiei zer inbidiatzerik, zirko handiek animaliak baino ez dituzte ateratzen. Nire ustez zirkoak ez dute animaliek egiten, pertsonak baizik eta benetako zirko batean, zirko-gizonak bizitza arriskuan jarri behar du. Kemena da jendaurrean erakutsi behar dena, eta ez animaliak soilik.

.....
“Zirkoa gerrate zibilean sortu zuten nire arbasoek eta geroztik negozio honetan dihardugu familia osoak”

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

• ESAERA •

“Herriari apaizak, soldaduak, medikuak eta irakasleak eman aurretik, egokia izango litzateke jakitea kasualitatez gosez hiltzen ari den edo ez”

TOLSTOI

• JEROGLIFIKOA •

KIKI

X

2

Irudi geometrikoa.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10				11			
12			13		14	15	
		16		17			
18	19					20	
21							22

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ase denaren egoera. 9. Zor guztiak ordaindu. 10. Baieztatzeko hitza. 11. Iridioa. 12. Enara. 14. (Ald.) Gehiegi. 16. (Ald.) Alkohol etilikoa. 18. Iskariote ez zen beste Judas. 20. Sozietate Anonimoen siglak. 21. Ohe azpia. 22. Txakur.

Bertikalak 1. Urretxu tronboi jolearen izena. 2. Lurrazalaren goi-geruza arina. 3. Sortalde. 4. Titanioa. 5. Sentimenak erne. 6. Herdoil, uger. 7. Alde hemendik. 8. Nukleoari dago-kiona. 13. (Ald.) Lan neketsua egiten duena. 15. Adin handiko emakumea. 17. Arka bat eraiki zuen. 19. (Ald.) Hektarearen ikurra.

• HOROSKOPOA •

Aries Erosketak arinago egiteko, karrotxo bat erosi.

Taurus Yogur naturala bezalakoa zara: naturala eta sana.

Gemini Asturietako printzearen antza duzu. Hori bai kategorial!

Cancer Zein azentu itsusi eta arraroa duzun hitzegiterakoan.

Leo Zure alboan jan ostean, aurpegia garbitu behar izaten da.

Virgo Datozen egunetan lagun berriak egingo dituzu.

Libra Iparra galduta zabiltza. Arazoei aurre egin ezinean?

Scorpio Telebista gehiago ikusteak on egingo dizu. Hamar ordu beharrean, hamabost.

Sagitaris Zure etxean arrotz sentitzen bazara, pasaporteak erakutsi sartu baino lehen.

Capricorn Askotan mutu geratzen zara. Zergatik?

Aquarius Igandean familiarteko bazkaria izango duzu eta beti bezala iskanbila ez da faltako.

Piscis Haizeak mendebaldetik jotzen duenean, erabat aldatzen zara. Bazenekien?

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA



Hauteskunde emaitzak igandean ATBn

Maiatzaren 28an gaueko 10etan, Mikel Irizarrek "Udal-hauteskundeak 95" programa berezia aurkeztuko du. Programa honetan Arrasateko, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Gatzagako eta Aramaioko

hauteskundeetako emaitza freskoenak emango dira ezagutzera. Bestalde, Arrasateko alderdi politiko bakoitzetik ordezkari bat etorriko da platora bere alderdiaren emaitzen balorazioa egitera.

KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



28 Igandea

22.00etan
"Udal-hauteskundeak 95" programa berezia.

29 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

30 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

31 Asteazkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Gazte-Nahaste. Gaia: "Gazteek badute interesik politikan?"

1 Osteguna

13.30etan
Gazte-Nahaste errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Mahaingurua" Mikel Irizarrek bide gorrie buruzko mahaingurua zuzenduko du. Juan Martin Elexpuru abenturazale eta idazlea, Eduardo Bergua, Donostiako bide gorrien aldeko "Calapié" taldekoa eta Jose Mari Eraña, Arrasateko bide gorrien aldeko "Lurrats" taldeko partaidea mintzatuko dira.

2 Ostirala

13.30etan
Mahaingurua (errep.)
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrakzi Bizidunak

SOLUZIOAK



MAIZPIDE
euskaltegia

Tfnoa: (943) 88 92 31/32
LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaileko ikastaroak: 3-21
- Abuztuko ikastaroak: 1-25
- Iraileko ikastaroa 4-29

MATRIKULA:

Maiatzaren 9tik aurrera
HABEren dirulaguntzaz

Etxebizitzak

- **Laredon uda partean** etxebizitza alokatzen da. Interesatuok dei egin iluntzean 79 31 47 tfnora.
- **Peñiscolan pisua** alokagai hondartzatik gertu. Tfnora: 79 57 31.
- **Torreviejan apartamentua** alokatzen dut aste-ka edo hamabostaldika. Guztiz jantzita dago eta hondartzaren ondoan. Tfnora: 78 14 72.
- **Garaje itxia** salgai. 20 m². Uribarri etorbidean. Pal ferreteriaren azpian. Tfnora: 79 54 03.
- **Etxebizitza salgai** Uribe auzoan. Tfnora: 79 30 72.
- **Bi oheko gela** alokagai. Tfnora: 79 07 73
- **Pisu bila ari gara.** Eskola Politeknikoaren ondoan bada hobe. Lau-bost lagunendako. Tfnora: 18 03 78 (astebukaeratan deitu).
- **70m²ko lonja** alokatzen da. Ura eta argia ditu. 40.000 pta.
- **Arrasaten lau edo bost** lagunendako pisua alokatzen da. Tfnora: 77 03 38 edo 79 18 03.

Lana

- **Ingeleseko klase partikularrak** ematen dira. Esperientzia eta talde txikiak. Tfnora: 79 28 80.
- **Gaztelerazko ipuin bat** euskaratzeko norbait behar dut. Tfnora: 715331.
- **Andra erizain** auxiliaria eta esperientziadun gerokultora pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnora: 79 34 53.
- **Maila guztiko ingeles klaseak** ematen dira; baita azterketak prestatzen lagundu ere. Tfnora: 79 53 40.

- **Lanak ordenadorez pasatzen dira** eta itzulpenak (ingelesetik-gaztelerara, gazteleratik-ingelesera) egiten dira. (kanadiarra). Tfnora: 79 53 40.
- **Astebukaerarako Dukiena** jatetxeak zerbitzari baten beharra du. Harremanetarako dei egin (945) 44 50 86.
- **Esperientziadun neska** bat eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnora: 71 44 27. Rakel.
- **Neska pres** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnora: 71 48 50.
- **Emakume euskalduna** etxeak garbitu eta umeak zaintzeko prest. Tfnora: 79 07 73.
- **Esperientziadun neska** umeak zaintzeko prest. Dei egin arratsaldeko 4ak arte 79 77 94 tfnora.
- **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 9etatik 10etara. Tfnora: 77 01 30.
- **Informatika, ingineritza edo enpresa** zientzietan lizentziatua behar da. Tfnora: 79 42 78.
- **Pertsona nagusiak** zaintzeko esperientziadun andra prest. Dei egin arratsaldeko edo asteburuetan 77 04 60 tfnora. Margari.
- **Kontabilitateko klaseak** hartuko nituzke. Tfnora: 79 71 05.

Salerosketak

- **Kotxea salgai:** Opel Corsa Swing SS-6501-V. Oso egoera onean. Deitu Tfnora: 770281.
- **Txakurkumea emango diot** nahi duenari pas-tor aleman arrazako umea da, martxoaren 31n jaiotakoa.
- **Karro denda** bat erosi nahi dut. Tfnora: 79 55 88. 8etatik aurrera deitu.

- **Suzuki DR-BIG 50 c.c** salgai. Tfnora: 782979. Iban.
- **Ford Transit** salgai. 100.000 kilometro ditu. Prezio eta egoera onean. Tfnora: 714894. Joxe Mari.
- **Kotxea amildegitik behera**, soloik-solo joan zaidalako aldatu beharra daukat. Kotxe on bat baldin badaukazu, aukeran gogorra eta ahuntz samarra dei egidazu. Tfnora: 79 76 92. Juanito
- **Siberian Husky arrazako** txakurkumeak salgai. Tfnora: 79 09 54.
- **Kotxea salgai.** Opel Corsa Swing. SS-U. Oso egoera onean. Dei egin: 77 02 81.
- **Sukaldeko altzariak salgai**, sukalde eta ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Deitu eguerdian edo gauen 79 01 66 tfnora. Arantzazu.
- **Collie kumeak salgai.** Dei egin 79 08 98 tfnora.
- **Cady markako motor beltza salgai.** Asegurua dauka iraila arte. 30.000 ptatan. Tfnora: 77 09 36.

Denetarik

- **Apirilaren 29an** eratzuna galdu zitzaidan azokan. Eratzunak 3 brillante eta 4 rubi ditu. Tfnora: 79 00 04.
- **Gasteiza joaten** naiz egunero, eta goizeko 8etarako bertan egon behar dut. Norbaitek joateko autoa nahi badu. Tfnora: 79 80 91. (Gauetz deitu).
- **Joan den larunbateko** SFX-eko abesbatzen topaketetan klabeek betetako kaxa bat desageratu zen, Amaia antzoki inguruan. Norbaitek ikusi badu, mesedez San Frantsisko Xabier-era dei egin dezala. Tfnora: 79 64 79.
- **Musika talde bat**, beste talde batzuen bila dabil lokal akondizionatu bat konpartitzeko. Tfnora: 799134. Miguel.

Aste Gazte

Bekak

- "AIEK (Artistas, interpretes o ejecutantes)" prestakuntza edo ikasketa musikalak hedatzeko beken deialdia egin du. Musika ikasleei zuzenduta. Epea: ekainak 30.
- Gipuzkoako Foru-Diputazioak, Gipuzkoako Lurralde Historikoari buruzko ikerketa historikoak egiteko beken deia egin du. Epea: maiatzak 27.

Lana

- Arabako Foru-Diputazioak, honako lanpostuak kaleratu ditu.

Enplegu bereziko tailerreko kapataza, enplegu bereziko tailer-arduraduna, elbarrituen hezitzailea, elbarrituen egoitzerako monitorea, fisioterapeuta, lanerako prestakuntzako monitorea, giza-garapeneko monitorea, mediku-geriatra, psikologoa, administrazio orokorreko teknikaria, gizarte laguntzailea, erizain laguntzailea, ATS, sukaldeko laguntzailea, liburuzain-dokumentalista, egoitzako sukaldaria, programa sektorialetako koordinatzailea, lan bereziko tailerreko kapataza. Epea: maiatzak 29.

Kirola eta abentura (diputazioa)


- 18-29 urte bitartekoei zuzendutako oporraldi egitarau ezberdinak: trabesiak, uretako ekintzak, zaldi ibilaldiak... Plaza mugatuak. Izena emateko epea: ekainaren 1etik 23ra.

Lehiaketak

- "Ermua Hiriko" I literatur lehiaketa. Bi modalitate izango dira; bata olerkia eta bestea narritiba motza, lanak euskaraz nahiz gazteleraz aurkeztu ahal izango dira. Epea: maiatzak 29

"Alde batera, adineko jendea gazte da, baina gaztetasun horrek ez du gehiengutsuenetan irtenbiderik aurkitzen, dela osasuna arazoengatik, dela egoera ekonomikoagatik, dela bakardadeagatik".

BERNARDO ATXAGA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnora: 77 00 65

Arrasateren
onerako.

Jose Mari Loiti

ARRASATE

Gipuzkoaren
onerako.

Batzar Nagusitarako hauteskundeak
DEBA-UROLA

Román Sudupe

"Gure herriaren izpiritu bultzatzailea
berreskuratzearen alde"



Emen Botoa

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



FAGOR 



Gure ezberdintasuna

Gure sukalde altzarien edertasuna eta diseinua base sendo batetan oinarritzen dira.

- Sukalde batek bizitza osoa irauteko eginda egon behar dela dakigulako.
- Etxeko altzarien artean traturik gogorrena daukatela dakigulako.
- Estetikaz gain, iraunkortsuna eta praktikotasuna bilatzen dela ziur gaudelako.
- Guzti hau zure beharretara egokitzeko zerbitzu onena merezi duzulako.

Hauxe da gure ezberdintasuna: edertasuna iraunkorrago egitea, gogorra ederrago egitea. BETIRAKO.

SUKALDE ERAKUSKETA

**Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43**

BAINU ERAKUSKETA

**Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42**